

# **Otxandioko euskararen kale-erabilera neurketak**

Hizkuntzen erabileraren neurketa egin dugu Otxandioko kaleetan 2013ko amaieran. 2006an egin ziren azken kale-erabilera neurketak herrian. Euskal Herriko kale-erabileraren neurketak Soziolinguistika Klusterrak egiten ditu eta Otxandion ere eurek bideratu dute neurketa, eta kalez-kale entzuten zituzten elkarrizketen hizkuntza bi Otxandiotarrek jaso dute.

Soziolinguistika Klusterraren arabera emaitzek +- %3,8ko akats tarteak dute, beraz, emaitzak oso fidagarriak dira.

## **Erabilera neurtzearen garrantzia herri mailako hizkuntza planifikazioan**

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

## **Metodologia**

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.


Irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea da: plaza inguruak, parkeak, salerosketa kaleak, eta abar. Neurtzen duguna taldeko elkarrizketa hizkuntza da. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak.

Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

**Lagina:** 670 elkarrizketa neurtu dira eta Otxandioko kaleetan eta plazan egon diren 1.413 hiztunek osatu dute lagina.


**AKATS-TARTEAREN KALKULUA:** ±%3,8koa

### Hizkuntzen kale-erabilera Otxandion 2013ko urrian




Otxandioko kaleetan elkarrizketen %45,9 euskaraz egiten dira, %52,5 gaztelaniaz eta %1,6 beste hizkuntzaren batean.

### Adinaren araberako euskararen kale-erabilera 2006 eta 2013 urteetan Otxandion



2013an haurren kaleko elkarrizketetan %67,6 izaten dira euskaraz eta beste %32,4a erdaraz. 2006an aldiz elkarrizketen %41,5 zen euskaraz.

### Sexuen araberako euskararen kale-erabilera Otxandion 2013an



**Talde eta pertsona ezberdinei erakutsi dizkiogu datuok eta euren iritzia eskatu. Hona hemen esan digutena.**

#### **Otxandioko Euskara Batzordea**

2006tik 2013ra eman den bilakaera ona izan da, kalean gehiago erabiltzen da. Plazan aldaketa handia eman da, orain dela urte batzuk plazan gaztelania gehiago entzuten zen. Kanpotik Otxandiora bizitzera etorri direnak Otxandio herri euskalduna dela uste dute eta guraso asko herri euskalduna delako etorri dira. Eurak naturalki egiten dute plazan euskaraz, guraso hauen erabilera natural honek beti erdaraz ibili direnak behintzat elebiduntzea eragin du eta euskarari prestigioa eman dio. Euskaraz egiteko ohitura naturaldu egin dute.